



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea

Txorierriko Zerbitzu Mankomunitatearen 2024-2026 aldirako dirulaguntzen Plan estrategikoa onartzea.

Mankomunitateko Osoko Bilkurak, martxoaren 18an egindako bilkuran, 2024-2026 aldirako Mankomunitatearen Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen, eta horren berri eman zen, erabaki horretan xedatutakoaren arabera.

Derion, 2024ko martxoaren 21ean. —Mankomunitateburua, Jon Ander Aurrekoetxea Artetxe



2024-2026 ALDIRAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ATARIKOA

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikulua oinarritzkoa da; beraz, dirulaguntzak eman nahi dituzten toki-erakunde guztiek onartu behar dute dagokien Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, eta plan estrateragiko hori erabilera publikoko edo gizarte-intereseko jarduera bat sustatzeko edo helburu publiko bat sustatzeko politika publikoak planifikatzeko tresna gisa sortuko da. Plan horren edukiak bat etorri behar du 38/2003 Legearen 8.1 artikuluan ezarritakoarekin eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritakoarekin.

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra urrats bat gehiago da sistema ekonomikoa perfektionatzeko eta arrazionalizatzeko prozesuan. Legea arautzen duen printzipioetako bat gardentasunarena da, eta Legean artikulatzen diren askotariko tresnekin batera, dirulaguntzen gastu publikoaren kudeaketan eraginkortasuna eta efizientzia areagotzen ditu zuzenean.

Zentzu horretan, dirulaguntzei buruzko informazio gehiago emanez gero, merkatuari eragin diezaioketen distortsioak eta interferentziak ezabatu ahal izango dira, eta administrazio publikoen jarduketak osagarriak eta koherenteak izango dira, gainjartze oro ekidinez. Efikazia hobetzeko, legerian Dirulaguntzen Plan Estrategiko bat egitea aurreikusten da, dirulaguntzak sortu aurretik.

Hori dela eta, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu du, eta jarraian daude Plan horretako artikulua.

1. KAPITULUA PRINTZPIO OROKORRAK

1. artikulua

Mankomunitate honek 2024-2026 aldirako ezarritako dirulaguntzek Plan honetan aurreikusitakoa beteko dute.

2. artikulua

Plan honetan aurreikusitako dirulaguntzak ezartzeko, dagozkien esleipenak sartu beharko dira urte bakoitzeko udal-aurrekontuetan, edo dirulaguntza horiek emateko oinarri arautzaileak onartu beharko dira, edo aurrekontuan dirulaguntza izendun gisa aurreikusi beharko dira, eta dirulaguntza horiek emateko ebazpena eman beharko da.

3. artikulua

Dirulaguntzak ezartzeko, aurrekontu-egonkortasuneko helburuak bete beharko dira; beraz, onartuko diren aurrekontu-esleipenak eta horiek emateko oinarri arautzaileak helburu horietara egokituko dira une bakoitzean.

4. artikulua

Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzeak ez die inolako eskubiderik emango balizko onuradunei; ondorioz, hauek ezingo dute inolako kalte-ordainik edo konpentsaziorik eskatu, Plana ez bada beraien terminoetan burutzen.

5. artikulua

Plan honen printzipio orokorrak hauek dira:

- Publizitatea eta lehia librea, aurrez egingo den deialdi bidez eta funts publikoen banaketan objektibotasuna, gardentasuna, publikotasuna eta berdintasuna bermatuz, zuzeneko emakidari kalterik egin gabe; zuzeneko emakida izanez gero, beharrezko aurrekontu-esleipena izan beharko du aurrez, ezarri daitekeen araudiaren arabera.



- Deialdian aurrez ezarritako irizpide objektiboen arabera emakida, onuradun izan daitezkeenek aurrez horien berri dutela bermatzeko.
- Eraginkortasuna markatutako helburuak betetzean eta baliabide publikoen esleipenean; beharrezkoa izango da justifikazio kuantitatibo eta kualitatiboa.
- Dirulaguntza eskatzen duten erakundeen helburuak diruz lagundutako jardueretan berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioetara egokitzen direla kontrolatzea eta aztertzea. Eta, berariaz, Plan Estrategikoaren egokitasuna une oro egiaztatzea. Hau da:
 - Plana termino sozialetan justifikatzea.
 - Planak kontuan hartzen dituen herritarren beharrak.
 - Finantza-gaitasuna.
 - Arlo horretako udal eskumena azaltzea.
 - Dirulaguntza ildo hau ez aplikatzearen azterketa.

6. artikulua

Mankomunitateburua izango da kudeaketa ekonomikoa garatzeko eta, beraz, Dirulaguntzen Plan Estrategikoa gauzatzeko eginkizuna esleituta duen organoa, laguntzak edo dirulaguntzak emateko eskumena duena, tokiko gobernu-batzarrean horri buruz eskuordetza emateari kalterik egin gabe. Hala ere, dirulaguntza osoko bilkuraren eskumeneko beste gai batzuk barne hartzen dituen hitzarmen baten bidez ematen bada, osoko bilkuraren eskumena izango da dirulaguntza hori ematea.

Dena dela, dirulaguntzen programak honakoen mende egongo dira:

- Aurrekontu-zuzkidura egokia eta nahikoa izatea.
- Zuzeneko dirulaguntzak edo emakidak eman aurretik edo aldi berean, gastua onartu beharko da, aurrekontuen arauetan aurreikusitako terminoetan.
- Dirulaguntzak eman aurretik, emakidaren arauak edo oinarriak onartu beharko dira, norgehiagoka bidezko dirulaguntzen kasuan.

2. KAPITULUA PLANAREN EDUKIA

7. artikulua

Plan honetan 2024-2026 aldirako aurreikusitako dirulaguntzak eta laguntzak emateko, eranskin bat dago eta sail/zerbitzu emaileen arabera dago banakatuta dirulaguntzen jarduera; era berean, aurrekontuan aurreikusitako dirulaguntzak honako irizpide hauen arabera daude antolatuta:

- Arloa: dirulaguntzaren gastu-arloa.
- Saila: dirulaguntza kudeatzen duen saila.
- Xedea: diruz lagundutako jarduera zehatza.
- Kudeaketa mota: emakidarako ezarriko den prozedura, xede horretarako ezarritako printzipio orokorren eta baldintzen arabera.
- Zenbatekoa: dirulaguntza bakoitzerako aurreikusitako esleipena.
- Aurrekontu-aplikazioa: dirulaguntza aurreikusten den gastuen aurrekontuko partida.



3. KAPITULUA

ONURADUNAK ETA DIRULAGUNTZEN GAIAK

8. artikulua

Mankomunitateak pertsona edo erakunde pribatuei emango dizkie dirulaguntzak, onura publikoko edo interes sozialeko jarduerak sustatzeko edo toki-eskumenari esleitu-tako helburu publikoak lortzeko.

9. artikulua

Mankomunitateak urtero ezarriko ditu dirulaguntzak Kultura, Euskara eta Gizarte Babesaren arloetan.

4. KAPITULUA

DIRUZ LAGUNDUTAKO PROGRAMEN ERAGINKORTASUNAREN EBALUAZIOA. EMAITZEN ANALISIA

10. artikulua

Onuradun guztiek diruz lagundutako jardueraren memoria, justifikazio kontua eta eskatu daitezkeen beste agiri batzuk aurkezteko betebeharrari kalterik egin gabe, dirulaguntzaren oinarri arautzaileekin edo emakida-ebazpenarekin edo hitzarmenarekin eta aplikatu beharreko araudiarekin bat etorritik, dirulaguntza bakoitzaren eraginkortasuna hobeto aztertu ahal izateko, dirulaguntzari dagozkien sailek txosten arrazoitua eskatu ahal izango diete onuradunei, garatutako jarduera kopurua, dirulaguntza zenbat herritarrengana iristen den, eta lortutako helburuen zurbidea eskatuz, aurreko justifikazioa eskatzeari kalterik egin gabe.

Hori dela eta, mankomunitateburuaren, mankomunitateburuordearen edo dagokion saileko informazio batzordearen buruaren aginduz, dirulaguntza kudeatzen duen sailak dirulaguntza ebaluatzeke beharrezko informazioa eskatuko dio onuradunari, honako hauek zehaztuko dituen ebaluazio txostena egin ahal izateko:

- Xedea.
- Erakunde onuraduna eta, dagokionean, laguntzailea.
- Diruz lagundutako zenbatekoa.
- Diruz lagundutako zenbatekoan garatutako ekintza zehatzak.
- Diruz lagundutako zenbatekoa zenbat herritarrengana iritsi den.
- Dirulaguntza eman duen erakundearen balorazioa, dirulaguntza eman den unean lortu nahi diren helburuetara egokitzeari dagokionez, eta dirulaguntza eragin duen programa mantentzearen edo kentzearen bidez kotasunari dagokionez.

Dirulaguntza kudeatzen den saileko teknikariak egin dezake ebaluazio txosten hau, dirulaguntza ematea eragin duen txostenarekin batera edo aurrez emanez gero, dirulaguntza zuzen edo oker lortu, erabili eta justifikatu izanari buruzko txostena.

5. KAPITULUA

INFORMAZIOA ETA PUBLIZITATEA

11. artikulua

Dirulaguntza bakoitza kudeatzen duen saileko edo zerbitzuko informazio batzordeko buruak eskariaren eta eman izanaren berri emango dio dagokion arloko informazio batzordeari.

12. artikulua

Dirulaguntzari dagokion arloko edo zerbitzuko teknikariak Dirulaguntzen Datu-base Nazionalera bidali beharko du deialdiei eta emakiden ebazpenei buruzko informazioa, ezarri beharreko araudian aurreikusitakoaren arabera.



13. artikulua

Mankomunitateak egindako dirulaguntza deialdi guztien eta emandako dirulaguntza guztien informazioari buruz legez ezarritako publizitatea egingo da.

I. ERANSKINA
(2024-2026 AURREKONTUAK)

Arloa	Saila	Xedea	Hartzailea	Mota	Zenbatekoa/ urtea (€)	Ezarpena
1. Kultura babestu eta sustatzeko jarduerak	Euskara	Euskara ikasleentzako bekak, euskara ikastea sustatzeko	Txorierriko bizilagunak	Lehia bidezkoa	4.000,00	335 48000
2. Kultura babestu eta sustatzeko jarduerak	Euskara	Euskaraz idatzeko sustapena, Alkor aldizkariaren bidez	Totoan dirulaguntza	Dirulaguntza izenduna	27.500,00	335 48100
3. Kultura babestu eta sustatzeko jarduerak	Kultura	Txorierriko bizilagunek musikaz gozatu eta erabiltzeko sustapena	Ipar Alde abesbatza	Dirulaguntza izenduna	6.000,00	334 48102
4. Gizartea babestu eta sustatzeko jarduerak	Gizarte zerbitzuak	Adineko pertsonen lagun egina, eskolako materiala banatu, etxeko garbiketarako eta higienarako materiala, haurren higienarako, gosari eta askari sortak eta jostailuak.	Urbe Aldeko Gurutze Gorria	Dirulaguntza izenduna	3.000,00	231 48105
5. Kultura babestu eta sustatzeko jarduerak	Euskara	Euskararen kultura eta erabilera sustatzea	Bertsolaritza elkarteak	Dirulaguntza izenduna	27.000,00	335 48102
6. Gizartea babestu eta sustatzeko jarduerak	Gizarte zerbitzuak	Txorierriko bizilagunentzako ongintzako eta laguntzako arreta	Txorierriko bizilagunak	Lehia bidezkoa	318.000,00	231 48000